

**EGIAZTAPENERAKO ETA BAIMENERAKO
UNIBERTSITATE TITULU OFIZIALAK
EBALUATZEKO LAGUNTZA GIDA
(DOKTOREGOA)**

SARRERA

Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legearen 48. artikulua eta Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren ekainaren 28ko 13/2012 Legearen 3. artikulua agentziaren esku uzten dute Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza soziala duten unibertsitateen titulazioak ebaluatzeko eskumena.

Gainera, unibertsitate-irakaskuntza ofizialen antolamendua ezartzen duen urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua aldatzen duen uztailaren 2ko 861/2010 Errege Dekretuan ildo nagusi, baldintza eta ziurtapen- eta egiaztapen-prozedura jasotzen dituzte, eta ikasketa-planek horiek guztiak bete beharko dituzte Unibertsitate, Zentro eta Tituluen Erregistroan sartu aurretik. Horrez gain, urtarrileko 28ko 99/2011 Errege Dekretuak, doktorego irakaskuntza ofizialak arautzen dituena, maila honetarako irizpide espezifikoak ezartzen ditu.

Bestetik, urtarrilaren 20ko 11/2009 Dekretuak prozedura bat arautzen du Unibasqek ebaluazio-txostena egin dezan Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza soziala duten unibertsitateetako titulu ofizialak lortzeko graduako, masterreko eta doktoregoko ikasketa-planek dagokienez.

Unibasqek, legeria hori eta REACU Unibertsitate Kalitateko Agentzien Espainiako Sareak titulu ofizialak egiaztatze onartutako ebaluazio-protokoloa oinarritzat hartuta, honako gida hau egin du, eta titulazioak ebaluatzeko batzordeek erabili ahal izango dute beren ebaluazioak egiteko; ildo horretan, titulu ofizialen proposamenek, ezarritako irizpide eta jarraibideak zenbateraino betetzen dituzten egiaztatze aukera izango dute, eta, horren arabera, egiaztapenaren eta dagokion baimenaren aldeko edo kontrako ebaluazio-txostena emango dute.

Dokumentu honetan aurkeztutako txantiloian hainbat galdera bildu dira, ebaluazio-batzordeek proposamenak balioesteko oinarri gisa erabiliko dituztenak. Txantiloia egitura bat dator 99/2011 Errege Dekretuaren eranskinetan jasotako alderdien arabera egiturekin eta urtarrilaren 20ko 11/2009 Dekretuan jasotako alderdiekin, unibertsitateek oinarritzat darabilzatenak doktorego titulu ofizialen memoriak egiteko:

1. Doktorego-programaren deskripzioa
2. Gaitasunak
3. Doktoregaien sarbidea eta onarpena
4. Prestakuntza jarduerak
5. Programaren antolaketa
6. Giza baliabideak
7. Doktoregaiantzat eskura dauden baliabide materialak eta material lagungarriak
8. Doktorego-programaren berrikuspena, hobekuntza eta emaitzak
9. Memoria ekonomikoa

Ebalua daitezkeen alderdiak txantiloian jasota daude, eta, haien ondoren, lau kategoriaren arabera balioespen-eskala dago; kategoria horien artean, besteak beste, datuak ez ematea eta betekizuna behar bezala beteta egotea daude. Aipatutako balioespen-eskala honako hau da:

- **EZ DU AURKEZTU:** Ez dago ebaluatzeko datu erabilgarririk.
- **EZ DU NAHIKOA AURKEZTU:** Gure ustez, balioetsi beharreko alderdiak EZ dira egokiak/berariazkoak/garrantzitsuak

eta abar.

- **NAHIKOA, BAINA HOBETU DAITEKE:** Balioetsi beharreko datuak egokiak/berariazkoak/garrantzitsuak eta abar dira gure ustez, baina hobetu daitezke informazio gehiago emanez edo lehendik dagoen informazioa argituz.
- **GOGOBEKOA:** Balioetsi beharreko alderdiak egokiak/berariazkoak/garrantzitsuak eta abar dira gure ustez.

Ebaluatzaileek gune zuri bat izango dute alderdi bakoitzari emandako kalifikazioa ahalik eta modurik osatuenean justifikatzeko. Ebaluazioaren elementu bakoitzari buruzko balioespena arrazoitu behar duzue, txantiloian horretarako ezarritako laukietan, baldin eta balioespena **EZ DA NAHIKOA** edo **NAHIKOA BAINA HOBETU DAITEKE** baldin bada.. Justifikazio horietatik gomendio eta ondorio batzuk aterako dira, Titulazioen Ebaluazio Batzordeak eman beharreko txostenak egiteko erabiliko dituenak, eta, ezinbestean, unibertsitateek aldatu beharko dituztenak, aldeko txostena lortzeko.

UNIBERTSITATE TITULU OFIZIALAK (DOKTOREGOA) EBALUATZEKO TXANTILOI LAGUNGARRIA

TITULUAREN IZENA	
ESKAERA EGIN DUEN UNIBERTSITATEA	
EBALUATZAILEA	
DATA	

1. DOKTOREGO-PROGRAMAREN DESKRIPZIOA

	Gogobetekoa	Nahikoa, baina hobetu daiteke	Ez du nahikoa aurkeztu	Ez du aurkeztu
1.1 DOKTOREGO-PROGRAMAREN IZENDAPENA				
Doktorego-programaren izena ikerketa-ildoekiko koherentea al da?				
Tituluaren izendapena araudian ezarritakoari egokitzen al zaio?				
1.2 BESTE ERAKUNDE BATZUEN PARTE-HARTZEA				
Doktorego-programa nazioko nahiz nazioarteko beste unibertsitate, erakunde edo instituzioekin lankidetzan aritzen den kasuan:				
Gauzatutako lankidetzak programaren garapenerako beharrezkoak, egokiak eta nahikoak al dira?				
Proposamena nazioarteko sare edo hitzarmenetan biltzea edo ez biltzea behar bezala justifikatuta al dago?				
Doktorego-programak nazioartekotze-maila egokia al du gaiaren eta testuinguruaren arabera?				
Doktorego-proposamena unibertsitateko, edo, hala badagokio, beste erakunde edo instituzioetako I+G+B-ko estrategian integratuta al dago?				
Beste unibertsitate batzuekiko baterako tituluaren proposamenetan: ikasleen espedienteak zaintzeko ardura, titulua eman eta erregistratzeko ardura, eta ikasketa-plana aldatu edo desagerrarazteko prozeduraren ardura zein unibertsitateri dagokion zehazten duen lankidetzak-hitzarmenik erantsi al da?				
Atzerriko beste unibertsitate batzuekiko baterako tituluaren proposamenetan: batera antolatzeko hitzarmenean jasota al dago Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateak zainduko dituela ematen dituen tituluaren espedienteak?				
Doktorego-programa nazioko nahiz nazioarteko beste unibertsitate, erakunde edo instituzioekin lankidetzan aritzen ez den kasuan: Programaren garapenari dagokionez, lankidetzarik eza justifikatuta al dago programaren gai-eremua kontuan hartuta?				

	Gogobetekoa	Nahikoa, baina hobetu daiteke	Ez du nahikoa aurkeztu	Ez du aurkeztu
1.3 BALORATU BEHARREKO BESTE ATAL BATZUK				
Nahikoak al dira erabilgarri dauden giza baliabide eta baliabide materialak, proposatutako sartu berrien plaza kopurua aintzat hartuta?				
Aurkeztu al dira ISCED kodeak, ikasle-aurreikuspenak, erabiliko diren hizkuntzak eta iraute-araudia (erraz eskuratzeko modukoa eta indarrean dagoena)?				
1.4 PROPOSATUTAKO TITULUAREN JUSTIFIKAZIOA, BERE INTERESEK AKADEMIKOA, ZIENTIFIKOA EDO PROFESIONALA ARGUDIATUZ				
Tituluaren proposamena justifikatzen duen testuinguru zientifikoa, akademikoa baita gizarte testuingurua deskribatzen al dira? (azken urteetako eskaintzari, eskariari eta matrikulari buruzko datuak, tituludunak laneratzeko azterlanari buruzko datuak eta abar)				
Doktoregoko unibertsitate-irakaskuntza ofizialak ezartzeko proposamenek kontuan hartu al dute benetako eskaera dagoela?				
Titulu batzuen kasuan, hau da, memorian argi ikusten ez denean titulazio horietan eskaera handia dagoela, ezinbestekoak al dira euskal gizartearen premiei erantzuteko?				
Lehen aldiz proposaturiko doktoregoko unibertsitate-irakaskuntza ofizialen kasuan: ikasle berrien eskaera-aurreikuspenak antzeko titulazioetan azken ikasturteetan erregistraturiko eskaerari erreferentzia egiten al dio?				
UPV/EHUK sustaturiko titulei dagokienez, titulu bat unibertsitate beraren zentro batean baino gehiagotan eskaintzen den kasuetan: Ba al dago titulazioen bikoiztasunari buruzko arrazoizko azalpenik?				
Titulu bat Euskal Unibertsitate Sistemaren Unibertsitate batean baino gehiagoan eskaini nahi bada: ba al dago titulazioen bikoiztasunari buruzko arrazoizko azalpenik?				

ALDAKETAK

Hala badagokio, aldeko txostena lortzeko, Unibertsitateak proposamenean derrigorrean adierazi behar dituen alderdiak adierazi behar dira:

GOMENDIOAK

Hala badagokio, proposamena hobetzeko, Unibertsitateak kontuan hartu behar dituen gomendioak adierazi behar dira, epe ertainean kontuan hartzekoak eta horren ondorioz, etorkizunean titulua aztertzean eta bere jarraipenean bereziki aztertuko direnak:

2. GAITASUNAK

	Gogobetekoa	Nahikoa, baina hobetu daiteke	Ez du nahikoa aurkeztu	Ez du aurkeztu
Gaitasunak (baita, hala badagokio, gaitasun gehigarriak ere), modu argi eta zehatzean jasota al daude? Eta ebaluagarriak al dira?				
Gaitasunak (baita, hala badagokio, gaitasun gehigarriak ere) doktorego-mailari dagozkion gaitasunekiko koherenteak al dira?				

ALDAKETAK

Hala badagokio, aldeko txostena lortzeko, Unibertsitateak proposamenean derrigorrean adierazi behar dituen alderdiak adierazi behar dira:

GOMENDIOAK

Hala badagokio, proposamena hobetzeko, Unibertsitateak kontuan hartu behar dituen gomendioak adierazi behar dira, epe ertainean kontuan hartzekoak eta horren ondorioz, etorkizunean titulua aztertzean eta bere jarraipenean bereziki aztertuko direnak:

3. IKASLEEN SARBIDEA ETA ONARPENA

	Gogobetekoa	Nahikoa, baina hobetu daiteke	Ez du nahikoa aurkeztu	Ez du aurkeztu
3.1. MATRIKULATU AURREKO INFORMAZIORAKO SISTEMAK				
Definitu al da doktorego programan sartzeko gomendatutako profila?				
Ongi definitu al dira tituluan sartzeko bideak, betekizunaketa irizpideak?				
Proposamenean aurreikusi al dira matrikulatu aurretik informazioa eskuratzeko bitarteko egokiak eta ikasle sartu berriak hartzeko eta orientatzeko prozedurak?				
3.2. SARBIDEA ETA ONARPENA				
Onartzeko prozedura burutuko duen organoa, eta bere osaera, zehaztu al dira?				
Onarpen- eta hautaketa-irizpideak argi deskribatuta al daude eta doktorego-programaren eremu zientifikoarekiko koherenteak al dira? Eta desgaitasunen baten ondorioz hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak ere kontuan hartzen al dira?				
3.3. PRESTAKUNTZA-OSAGARRIAK				
Sarrera-profil bat baino gehiago baldin badaude, prestakuntza-osagarriak profil bakoitzari egokituta al daude?				
Prestakuntza-osagarri espezifiko horiek egokiak eta programaren eremu zientifikoarekiko koherenteak al dira?				
3.4. MATRIKULATUTAKO IKASLEAK ETA JATORRIZKO UNIBERTSITATEA				
Doktorego-programa beste doktorego-programa batetik/batzuetatik eratorritakoa den kasuan:				
Azken 5 urteetako ikasle berrien kopuruak izan duen bilakaera egokitzen al da? Eta proposamenaren bideragarritasuna bermatzen al du?				

	Gogobetekoa	Nahikoa, baina hobetu daiteke	Ez du nahikoa aurkeztu	Ez du aurkeztu
Azken 5 urteetan beste herrialdeetatik etorritako ikasleen ehunekoa nahikotzat jotzen al da, programaren eremu zientifikoa kontuan hartuta?				
Doktorego-programa berria den kasuan:				
Programa berrien kasuan, ikasle berrien kopuruaren aurreikuspena errealista al da? Eta programa bera justifikatzen al du?				
Beste herrialdeetatik etorritako ikasle berrien ehunekoaren aurreikuspena nahikotzat jotzen al da programaren eremu zientifikoa kontuan hartuta?				

ALDAKETAK

Hala badagokio, aldeko txostena lortzeko, Unibertsitateak proposamenean derrigorrean adierazi behar dituen alderdiak adierazi behar dira:

GOMENDIOAK

Hala badagokio, proposamena hobetzeko, Unibertsitateak kontuan hartu behar dituen gomendioak adierazi behar dira, epe ertainean kontuan hartzekoak eta horren ondorioz, etorkizunean titulua aztertzean eta bere jarraipenean bereziki aztertuko direnak:

4. PRESTAKUNTZA JARDUERAK

	Gogobetekoa	Nahikoa, baina hobetu daiteke	Ez du nahikoa aurkeztu	Ez du aurkeztu
4.1. ANTOLAKETA				
Graduaren, masterraren eta doktoregoaren arteko lotura behar bezala planifikatuta al dago?				
Zehaztu al dira tituluak irakaskuntza koordinatzeko dauzkan bitartekoak?				
Bat al datoz prestakuntza jarduerak tituluaren gaitasunekin?				
Prestakuntza-jardueren plangintza eta antolaketa behar bezala diseinatuta al daude denbora-garapenari eta iraupenari dagokienez?				
Kontuan izan al da prestakuntza-jardueren plangintza eta antolaketa arduraldi partzialeko ikasleentzat?				
Prestakuntza-jarduerak kontrolatzeko prozedurak egokitzen al dira?				
Euskara eta hirugarren hizkuntza bultzatzeari buruzko araudian aipatzen den irizpide-aplikazioa bermatzen duten mekanismoak ezartzen al dira?				
Titulu-proposamenean aipatzen al da genero-ikuspegia unibertsitatean txertatuta dagoelako ebidentziak badaudela? (berdintasun-plana, politikak bultzatzeko berdintasun-egitura, jardun espezifikoak,...)				
Hala badagokio, ikasketa-planetan sartu al dira desgaituen funtsezko eskubideekin eta irisgarritasun unibertsalarekin zerikusia duten irakaskuntzak? Eta bakean eta balio demokratikoetan oinarritutako kultura baten berezko balioekin zerikusia dutenak?				
4.2. MUGIKORTASUNA				
Informaziorik eskaintzen al da ikasleen eta titulazioari atxikitako langileen mugikortasuna ahalbidetzeko lankidetzahitzarmenen inguruan eta mugikortasuna finantzatzeko eman daitezkeen laguntzen (ikasteko bidaia-poltsak, lekualdatzeko poltsak eta abar) inguruan?				

	Gogobetekoa	Nahikoa, baina hobetu daiteke	Ez du nahikoa aurkeztu	Ez du aurkeztu
Doktorego-programak doktoregaien mugikortasunaren antolaketa eta denbora-plangintza egokia barne hartzen al du, haien arduraldia kontuan hartuta eta haiek eskuratuko dituzten gaitasunekin koherentea izanik?				
Mugikortasun-ekintzek plangintza, jarraipenerako, ebaluaziorako, eta curriculum-onespenerako mekanismo egokiak al dituzte?				

ALDAKETAK

Hala badagokio, aldeko txostena lortzeko, Unibertsitateak proposamenean derrigorrean adierazi behar dituen alderdiak adierazi behar dira:

GOMENDIOAK

Hala badagokio, proposamena hobetzeko, Unibertsitateak kontuan hartu behar dituen gomendioak adierazi behar dira, epe ertainean kontuan hartzekoak eta horren ondorioz, etorkizunean titulua aztertzean eta bere jarraipenean bereziki aztertuko direnak:

5. PROGRAMAREN ANTOLAKETA

	Gogobetekoa	Nahikoa, baina hobetu daiteke	Ez du nahikoa aurkeztu	Ez du aurkeztu
5.1. DOKTOREGO-TESIEN IKUSKAPENA				
Doktorego-tesien zuzendaritza edo baterako zuzendaritza sustatzeko aurreikusitako jarduerak (betiere akademikoki justifikatutako kasuetan) nahikoak eta egokiak al dira programaren garapenerako?				
Doktorego-tesien zuzendaritzarako jardunbide egokien gidarik edo doktoregaiarekiko konpromiso-dokumenturik ba al dago?				
Aurreikusi al da nazioarteko adituek jarraipen-batzordeetan, aurretiko txostenetan eta tesien epaimahaietan parte hartzea?				
5.2. DOKTOREGAIEN JARRAIPENA				
Batzorde Akademikoaren osaera adierazi al da?				
Batzorde akademikoak doktoregaiaren tesi-tutorea eta -zuzendaria izendatzeko eta haien balizko aldaketarako erabilitako prozedura egokia al da?				
Batzorde akademikoak doktoregai bakoitzaren jardueradokumentua kontrolatzeko, haien datuak egiaztatze eta urteko ikerketa-plana balioesteko erabilitako prozedura egokia al da?				
Hala badagokio, beste zentroetan aurreikusitako egonaldiak, baterako tutoretzak eta Europako aipamenak nahikotzat jotzen al dira doktoregaiaren prestakuntza garatzeko?				
5.3 TESIEN DEFENDATZEKO ARAUDIA				
Programan doktorego-tesiak aurkezteko eta irakurtzeko zehazten den araudia egokia eta publikoa al da? Eta 99/2011 Errege Dekretuaren arabera eguneratuta al dago?				

ALDAKETAK

Hala badagokio, aldeko txostena lortzeko, Unibertsitateak proposamenean derrigorrean adierazi behar dituen alderdiak adierazi behar dira:

GOMENDIOAK

Hala badagokio, proposamena hobetzeko, Unibertsitateak kontuan hartu behar dituen gomendioak adierazi behar dira, epe ertainean kontuan hartzekoak eta horren ondorioz, etorkizunean titulua aztertzean eta bere jarraipenean bereziki aztertuko direnak:

6. GIZA BALIABIDEAK

	Gogobetekoa	Nahikoa, baina hobetu daiteke	Ez du nahikoa aurkeztu	Ez du aurkeztu
6.1. IKERKETA-ILDO ETA TALDEAK				
Prestakuntzari dagokionez programaren bideragarritasuna a priori ziurtatzen duten ikertzaileen multzo batek abalatu al du doktorego-programa?				
Doktorego-programa osatzen duen ikerketa-talde bakoitzak ba al dauka programaren ikerketa-ildoekin erlazionatutako gaiekin zerikusia duen ikerketa-proiektu aktibo bat –lehiaketa-deialdietan lortutakoa– gutxienez?				
Azken 5 urteetan programan parte hartu duten ikertzaileek aurkeztutako 25 ekarpen zientifikoek kalitatea egokia al da?				
Ikerketa-taldeetako banaketa homogeneoa al da?				
Ikerketa-talde bakoitzean aipatutako 3 irakasleek ba al daukate azken bost urteei (seiurteko bizia) dagokien egiaztatutako esperientziarik doktorego-tesien zuzendaritzan?				
Aurkeztutako 10 doktorego-tesietatik eratorritako 10 ekarpen zientifikoek kalitatea egokia al da?				
Doktorego-programan nazioarteko adituen parte hartzea aurreikusi al da?				
Irakasleak kontratatzeari dagokionez, aurreikusi al dira gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren eta desgaituak ez diskriminatzeko irizpideak bermatzeko mekanismoak?				
6.2. DOKTOREGO-TESIEN TUTORIZAZIO- ETA ZUZENDARITZA-LANA AINTZATESTEKO MEKANISMOAK				
Unibertsitateak ba al dauka doktorego-tesien tutorizazio- eta zuzendaritza-lana programako ikertzaileen irakaskuntza-dedikazio gisa aintzat hartzeko mekanismo garbirik?				

	Gogobetekoa	Nahikoa, baina hobetu daiteke	Ez du nahikoa aurkeztu	Ez du aurkeztu
Egokiak al dira mekanismo horiek?				

ALDAKETAK

Hala badagokio, aldeko txostena lortzeko, Unibertsitateak proposamenean derrigorrean adierazi behar dituen alderdiak adierazi behar dira:

GOMENDIOAK

Hala badagokio, proposamena hobetzeko, Unibertsitateak kontuan hartu behar dituen gomendioak adierazi behar dira, epe ertainean kontuan hartzekoak eta horren ondorioz, etorkizunean titulua aztertzean eta bere jarraipenean bereziki aztertuko direnak:

7. ESKURA DAUDEN BALIABIDE MATERIALAK ETA MATERIAL LAGUNGARRIAK

	Gogobetekoa	Nahikoa, baina hobetu daiteke	Ez du nahikoa aurkeztu	Ez du aurkeztu
Doktorego-programarekin lotutako baliabide materialak eta beste baliabide erabilgarri batzuk (laborategiak eta tailerrak, liburutegia, datu-baseetarako sarbidea, konektibitatea eta abar) doktoregaiak gauzatu beharreko ikerketaren garapena bermatzeko egokiak al dira?				
Hala badagokio, aukera ematen al dute erakunde laguntzaileetan erabilgarri dauden baliabide material eta zerbitzuek ikerkuntza-jardueren garapena bermatzeko?				
Doktorego-programak aurreikusten al ditu kongresuetara joateko eta atzerrian egonaldiak egin ahal izateko laguntzetara bideratutako kanpo-baliabideak eta bidaia-poltsak, betiere doktoregaien prestakuntzan laguntzeko?				
Laguntza horiek lortzeko aurreikusitako doktoregaien ehunekoa egokitzat hartzen al da?				
Doktorego-programak/unibertsitateak ba al dauka programako doktore egresatuen laneratze egokia ahalbidetuko duen lanbide-orientazioko zerbitzurik?				

ALDAKETAK

Hala badagokio, aldeko txostena lortzeko, Unibertsitateak proposamenean derrigorrean adierazi behar dituen alderdiak adierazi behar dira:

GOMENDIOAK

Hala badagokio, proposamena hobetzeko, Unibertsitateak kontuan hartu behar dituen gomendioak adierazi behar dira, epe ertainean kontuan hartzekoak eta horren ondorioz, etorkizunean titulua aztertzean eta bere jarraipenean bereziki aztertuko direnak:

8. PROGRAMAREN BERRIKUSPENA, HOBEKUNTZA ETA EMAITZAK

OHARRA: zentroak Unibertsitate Prestakuntzaren Kalitatearen Barne Bermeko Sistemak Errekonozitzeko Programan (Unibasgen AUDIT) parte hartu badu eta aldeko txostena badu, atal hau ez da bete behar.

	Gogobetekoa	Nahikoa, baina hobetu daiteke	Ez du nahikoa aurkeztu	Ez du aurkeztu
8.1. KALITATEA BERMATZEKO SISTEMA				
Doktorego-programak ba al dauka prozedurak eta mekanismoak (baita programan inplikaturako kolektibo desberdinen iritzia ere) antolatuko dituen eta kalitatea bermatzeko sistemaz arduratuko den organorik, programaren garapena gainbegiratzeko, emaitzak aztertzeko eta bidezko diren hobetze-jardunak zehazteko?				
Doktorego-programak ba al dauka programaren garapena gainbegiratzeko, emaitzak aztertzeko eta bidezko diren hobetze-jardunak zehazteko prozedura eta mekanismorik?				
Unibertsitate batek baino gehiagok parte hartzen duten programen kasuan, ba al dago unibertsitate parte-hartzaileen arteko koordinazioa ziurtatuko duen mekanismo eta prozedurarik, programaren garapena gainbegiratu, emaitzak aztertu eta hobetze-jarduerak zehazteko?				
Doktorego-programak ba al dauka mugigarritasun-programen garapen egokia ziurtatuko duen prozedura eta mekanismorik?				
Definitu al dira tituluaren inplikaturako kolektiboen gogobetetzeari buruzko informazioa biltzeko eta aztertzeko prozedurak? Eta zehaztu al da ikasketa-plana berrikusteari eta planaren garapena hobetzeari dagokionez informazio hori nola erabiliko den?				
Doktorego-programak ba al dauka programari eta haren garapen eta emaitzei buruzko informazioa argitaratzeko prozedura eta mekanismorik?				
Doktorego-programak ba al dauka titulazioaren berrikuspena ahalbidetzen duen prozedura eta mekanismorik, titulazioa premia berrietara egoki dadin ahalbidetzeko?				

	Gogobetekoa	Nahikoa, baina hobetu daiteke	Ez du nahikoa aurkeztu	Ez du aurkeztu
Aztertu al da batzorde bat sortzeko aukera, enplegu-emaileekin eta, oro har, titulazio bakoitzerako garrantzitsua den ingurune ekonomiko eta profesionalarekin elkarrizketarako gunea irekia lortzea ahalbidetuko duena?				
Definitu al dira ikasleen iradokizunei edo erreklamazioei buruzko informazioa biltzeko eta aztertzeko prozedura egokiak? Eta zehaztu al da ikasketa-plana berrikusteari eta planaren garapena hobetzeari dagokionez informazio hori nola erabiliko den?				
Definitu al dira irizpide eta prozedura espezifikoak balizko titulu-desagertzearen kasurako?				
8.2. ATERATAKO DOKTOREEN JARRAIPENA				
Programak ba al dauka doktore egresatuen jarraipena egiteko prozedura eta mekanismorik?				
Adierazten al da doktoratu ondoko kontratuetarako laguntzak lortzeko aurreikusitako doktoregaien ehunekoa?				
Martxan dauden programen kasuan doktoregaien enplegarritasunari buruzko daturik adierazten al da? Eta programa berrien kasuan, enplegarritasun-aurreikuspenaren daturik adierazten al da?				
8.3. EMAITZAK ETA AURREIKUSPENA				
Doktorego-programa aurretik sortutako doktorego-programa batetik edo batzuetatik eratorria den kasuan:				
Doktorego-programaren emaitzen azken 5 urteetako bilakaerak justifikatzen al du programa, haren eremu zientifikoa kontuan hartuta?				
Doktorego-programa berria den kasuan:				
Doktorego-programaren hurrengo 6 urteetako emaitzen aurreikuspenak justifikatzen al du programa bera, haren eremu zientifikoa kontuan hartuta?				

ALDAKETAK

Hala badagokio, aldeko txostena lortzeko, Unibertsitateak proposamenean derrigorrean adierazi behar dituen alderdiak adierazi behar dira:

GOMENDIOAK

Hala badagokio, proposamena hobetzeko, Unibertsitateak kontuan hartu behar dituen gomendioak adierazi behar dira, epe ertainean kontuan hartzekoak eta horren ondorioz, etorkizunean titulua aztertzean eta bere jarraipenean bereziki aztertuko direnak:

9. MEMORIA EKONOMIKOA

	Gogobetekoa	Nahikoa, baina hobetu daiteke	Ez du nahikoa aurkeztu	Ez du aurkeztu
Tituluarri loturiko sarrerei, gastuei eta inbertsioei buruzko deskribapen laburra aurkeztu al da?				
UPV/EHUren kasuan: Aurkeztu al da memoria ekonomiko zehaztua –azpiegitura materialari, irakasle eta ikertzaileen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen baliabideei buruzko datuak ez ezik finantzaketa-iturriak ere aipatzen dituenena-?				
UPV/EHUren kasuan: Gehitu al da plantilla edo baliabide materialak areagotzeko premia dagoela?				

ALDAKETAK

Hala badagokio, aldeko txostena lortzeko, Unibertsitateak proposamenean derrigorrean adierazi behar dituen alderdiak adierazi behar dira:

GOMENDIOAK

Hala badagokio, proposamena hobetzeko, Unibertsitateak kontuan hartu behar dituen gomendioak adierazi behar dira, epe ertainean kontuan hartzekoak eta horren ondorioz, etorkizunean titulua aztertzean eta bere jarraipenean bereziki aztertuko direnak: